

Datu-zentroak



ULA IRURETAGOIENA

Internet lurralde fisiko bat izango baltz, planetako seigarren lurralderik kutsakorrena izango litzateke.

Elektronikako gailuen ekoizpenean erabiltzen diren mineral natural kantitate handiaren, ekoizpen prozesuan sortzen den CO2 isurketaren eta epe laburrean erabilerarik gabeko elektronika material-hondakinen berri bagenuen. Baina ezezagunagoa zaigu datu biltegien azpiegiturek eta datu digitalek sortzen duten ingurumen hondamendia.

Datu digitalen byte bakoitzak aztarna ekologiko bat uzten du. Email bat bidaltzeak CO2 isurketa gramo bat suposatzen du, eta erabilerarik gabeko biltegiraturiko argazkiek isurketa bat dute ere bai. Materia eta fisikotasunik gabeko datu digitalek, metabertsoak, adimen artifizialak, gauzen internetak, laneko eta bizitza sozialeko streaming eta bideo-deiek ingurumenean eragina dute, eta ez omen da txikia. Hodeiaren irudi etereoak iradokitzen duen garbitasunak engainura eramaten gaitu. Eta etorkizunean datu digitalen hazkuntza zeharo handituko dela jakiteak alarma piztu beharko liguke, giza eta mental alorrekin batera, ingurumen inpaktuagatik.

Toledon datuak biltzeko campus erraldoia eraiki nahi dute aurten, Europako bosgarren handiena, facebook, instagram eta Whatsapp aplikazioen datuak gordetzeko batik bat. Eta berriki albisteak izan da, eraikuntza multzo berriak ur-kontsumo ikaragarria behar duela telekomunikazio eta elektronika sareen hoztea lortzeko, non eta lehorte latzak pairatzen ari den zonalde batean. Gobernariak azkar erantzun dute berreskuratze hidrológico plan bat izango duela eraikinen egarriak biztanlegoaren ur beharretan eraginik izan ez dezan. Baina proiektuari buruz egin diren zehaztapen teknikoak oso lausoak dira oraindik eta ez garez atzo jaiok, susmoa esnatzen du. Baliteke munduaren bizimodua digitalizatzea black box erraldoien truke izatea, eta baliabide materialen xahutzearen joerari eustea, inmateralitasunak ez baikaitu libratuko. ●

“Kutxabankek Euskadiko mugetatik kanpo hazi behar du”

ANTON ARRIOLA

Kutxabankeko presidentek iradoki du Euskal Herriatik kanpo hazteko proiektua duela Kutxabankek, eta horretarako banku pribatuetan eta inbertsio bankuetan jarri du begia.

ARGIA.EUS (2023-05-10)



“ETXEBIZITZAREN ARAZOA KONPONDU NAHI BADUGU, HERRI BAKOITZAK EZIN DU BERE ALDETIK SOILIK ARITU”

HEGO EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

2023-05-10

“Txikizio handiak egin badira ere, mendiak zulatu eta ehunka iturri lehortu badira ere, obrak 15 langile hil baditu eta 6 milioi inguruko gastu publikoa egin bada ere, oraindik denboran gaude, eta ahalik eta azkarren AHT gelditu behar dugu”

OARSOALDEKO ETA DONOSTIALDEKO AHT-AREN KONTRAKO MUGIMENDUA

2023-05-10